

EUSKALZALE-REN ZUZENDARI ABADE LEIAL

ON RESURRECCIÓN MARÍA AZKUE-KOARI



Bear bezela eskerrak nola
eman ezdakit bedorri,
zeren bialdu zizkiran duan
iru liburu on berri;
bada ¿zer egin neioke orain
nik iru lan oin ederri?
beren ordaintzan iru itz neurtza
ezarri oroimengarri.

Lanetan bat zan bedorren aitak
izkribatua antziña,
non agertzen dan zala euskal-itx
neurlari asko jakiña;
bigarrena da euskal izkuntza
ikasitzeko egiña,
eta da berriz irugarrena
Fleuri-ren Kristau dotriña.

Agertu ditan begiramena
detala beti goguan,
bere truk diot deseatutzen
nere naitasun beruan,
zoriontasun ugariz orni
dezala Jaunak munduan,
eta alkicho bat eser leku
gorde diola Zeruan.

RAMÓN ARTOLA.

